


## KOSTUAK:

Gure proiektua abian jartzeko azpian agertzen diren inbertsioak burutu beharko ditugu:


	Unitate	Unitate Kostua	Guztira
Bulegoaren Materiala	1	1.200,00 €	1.200€
Gainerako Materiala (ordenagailuak)	6	800,00 €	4.800,00 €
Inbertsioa guztira			6.000€



Gauzak honela, inbertsio hauek finantzatzeko bankuari 12.000€ko mailegua eskatuko diogu, 6.000€ko diruzaintza gure dirutik jarriko dugu (1.500€ bakoitzak) eta honela diruzaintzan 12.000 euro izango ditugu eskuragarri (gutxi gora-behera gure hilabeteko kostuen haina). Banketxeari eskatutako mailegua 24 hiletan ordainduko dugu %6,11ko interesarekin (hileroko kuota 531,38€ izango litzateke).


Inbertsioez gain, hilabetero beste zenbait gastu izango ditugu, azpiko taulan zehazten direnak hain zuzen:

Hile guztietan behar dugun dirua		Zenbateko kostua	Guztira
Gure soldata	4	950,00 €	3.800,00 €
Informatikarien soldata	6	950,00€	5.700,00€
Hornikuntza gastuak(internet , argia...)		150,00 €	150,00 €
Bulegoaren alokairua		600,00€	600,00€
Prestamoa itzultzea		531,58€	531,58€
Guztira			10.781,58 €



Hilero ditugun kostu **aldakorrei** begira, argia (elektrizitatea orokorrean), ura , gasa , internet-a; hitz gutzitan , hornidura kostuak izango lirateke. Beste aldetik hilero beste kostu batzuk ditugu, **finakoak**, hauek izango direnak: gure informatika teknikari taldearen soldata ( 6 langile, 950€ bakoitzak ), gure soldatak (950€ bakoitzak), bulegoaren alokairua (600€) eta azkenik enpresa zabaltzeko eskatutako prestamoaren itzultzea (531,58€)

Gauzak horrela, hilero 10.781,58€ euro ordaindu beharko ditugu enpresa aurrera eraman ahal izateko. Lehenengo urtean irabazitako dirua berrinbertituko dugu e-clothen gauza berriak erosteko, publizitatean inbertitzeko eta beste enpresekin harremanak hobetzeko.



Kostuak alde batera utzita enplegua **sortzen** saiatuko gara, eta etorkizunean bigarren eskuko eta erabilitako jantzien erabilera sustatuko dugu, **ingurumenaren alde** eta **kontsumismoaren aurka**. Parley Ocean Plastic bezalako enpresek interesa dute horretan, ozeanoaren plastikoa murrizteko marka handiekin lan egiten baitute. Beraz **etorkizuneko helburu** bat haiekin lankidetzan aritzea izango litzateke.

